

CANVAS IDEIA

ABA enpresak proiektu berri aurkezten dizue aurten: HELPAPP.

ZERTAN DATZA?

Helpapp edonorentzat zuzendutako aplikazio bat da, zuretzat adibidez. Bertan, Interneten erabilera egokia egiteko eta sarea erabiltzen ikasteko laguntza eskainiko duena euskaraz.

Nondik atera da ideia?

Brainstorming, ideiak identifikatzeko teknika da eta gai bati edo interes konkretuei buruzko ahalik eta ideia gehien ateratzean datza. Ideia-zaparrada hauek elkarreragina zuten, enpresak argi zituen inspirazio-iturrietatik atera baitziren. Hala nola, gure prestakuntza eta helburuak.

Zer arazo konponduko dugu?

Enpresak argi zuen, **arazo bat bideratu** nahi zuela. Gaur egungo baliabide garrantzitsuenetarikoaren (Internet) **jakintza eskasa, erabilera desegokia eta gehiago ikasteko beharra**. Gaur eguneko bizitzan, zaila da bizitzea teknologia gabe eta gizartean badago jendea erabiltzen ez dakiena edo jakitekotan hobetu nahi duena edo erabilera egokia egiten ez duena. Arazo honi aurre egiteko sortu dugu **HELPAPP** aplikazioa.

Zergatik?

Esan bezala, Interneten ibiltzea **ezinbestekoa** da, beraz, **jende gehienak** dauka ordenagailu, mugikor, tableta edo Interneten bidez dabilen **aparatu teknologikoa**. Horregatik, **etorkizunean asko garatu eta hedatuko den arlo** bat da.

Zertan bereizten gara? Gaur egun, ez dago guk proposatzen dugun plataforma antzekorik.

- Modu dinamikoan irakatsi
- Abiadura handiko aplikazioa
- Erraza eta sinplea
- 24 orduz martxan
- Harreman estua bezeroekin
- 100% euskaraz

24h-ko plataforma: zure galdera idatzi eta automatikoki erantzun. Honen ideia Whatsapp elkarrizketa baten antzera izatea da; gurekin bideo deiak (hitzartutako orduetan) egitea da, erraztasuna eskaintzeko; galdera orokorren eta erantzunen gida idatzia egiteko; streaming-ak, ekintza berriak egiten ikasteko...



Gainera, gure helburua **arazo sozial hau bideratzea** denez, aplikazioa deskargatzea **dohainekoa** da. Horrela, dirua ez da arazoa izango eta mundu guztiaren eskuetan egotea posible izango da. Hala ere, **kasu pertsonal eta zehatzak** bilatzen duten pertsonentzako atala egongo da baina, hauen erabilerarako **ordaindu** egin beharko da. Kasu hauen adibide dira pertsonarekin deia edo bideodeia pertsonalizatuak, erraztasunak eskaintzeko, gertutasuna adierazteko eta haiei lana murrizteko.

**“HELPAPP= GERTUTASUNA+
ABIADURA+IKASKUNTZA+ERRAZA+24/7”**

